

Laburpena
Resumen

KUDEAKETA ETA PLANGINTZA TXOSTENA 2023/2024 INFORME Y PLAN DE GESTIÓN

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

www.ehu.eus/es/web/zientzia-teknologia-fakultatea

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	1
FAKULTATEKO PROZESUEN MAPA ETA TITULUAK.....	2
ESTRATEGIA ETA KALITATE POLITIKA	3
PROZESUEN BERRIKUSKETA.....	7
EMAITZA NAGUSIAK.....	11
GRADUKO TITULUEN ADIERAZLEAK.....	11
MASTERREKO TITULUEN ADIERAZLEAK.....	13
SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK.....	14
EKINTZAK.....	15
2023/24 IKASTURTEAN EGINDAKO EKINTZA BATZUK.....	15
2024/25 IKASTURTEAN BURUTU NAHI DIREN EKINTZA BATZUK.....	15

AURKEZPENA

Txosten honetan UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean 2023/24 ikasturtean zehar egin diren ekintzen berri emango da. Gainera, lortutako emaitzak azalduko dira, eta baita hurrengo ikasturtean martxan jarriko den hobekuntza-plana nolakoa izango den zehaztu ere.

Akreditazio instituzionala berritu ahal izateko ebaluazioa arrakastaz gainditu da 2023/24 ikasturtean, eta, horri esker, Zientzia eta Teknologia Fakultatea akreditazioa lortu duen lehenengo fakultate publikoa da. UNIBASQ-en amaierako txostenak, 2024ko uztailaren 22koak, 13 gomendio biltzen ditu, eta, horiei erantzun ondoren, 2024/25erako hobekuntza planean ekintza-multzo bat gehitu da haietatik abiatuta.

Bestalde, 2024ko abuztuaren 31n 2017-2023 aldirako Plan Estrategikoa bukatu da, eta bertan finkatutako ekintza gehienekin konplitu da: 18 helburu estrategikotatik 12tan ekintza estrategikoen % 100 gauzatu da, eta, gainontzeko 6 helburuen kasuan, ekintza estrategikoen % 50 eta % 86,67 gauzatu da. Edonola ere, ekintza estrategiko batzuk alde batera utzi behar izan dira erabat burutu aurretik, eta horrek eragin du guztiak bete ezin izana; gainera, zenbait ekintza baztertu beharra egoera ugari eragin dute, eta gehienak bat-batean agertu dira.

Ikastegiko prestakuntza proiektuari dagokionez, graduak berrikusten dituzten lantaldeek egindako lan handia nabarmengarria da: 2023/24 ikasturtean proiektuaren lehenengo fasea amaitu dute; zehazki, oraingo titulazioen ikasketa planak aztertu eta aurkitutako hutsuneak hobetzeko aldaketak proposatu dituzte, eta, ondoren, sailetako zuzendariei azaldu dizkiete haien iritzia jasotzeko. 2024/25 ikasturtean, hobekuntza proposamen hori graduiko titulazio guztien ikasketa planetan aplikatzen saiatuko gara. Hala ere, oraingo graduak erakargarriak izaten jarraitzen dute batxilergoko ikasleentzat, eta, hori baieztatzeko, nahikoa da fakultateko batez besteko onarpen nota altua begiratzea (11,85 14tik), 2022/23 ikasturtekoaren antzekoa (11,94 14tik). Horrez gain, fakultatean sartu berri diren ikasleek bokazio handia dute, gehienak lehen edo bigarren aukerako ikasketetan matrikulatu baitira. Orobat, aurreko ikasturteetan gertatu den moduan, fakultatean sartu berri diren ikasleen % 60k euskaraz ikastea erabaki du, eta, horren ondorioz, fakultateko ikasleen % 60k euskaraz ikasten du. Nolanahi ere, ehuneko hori ez dator GrAla euskaraz egiten eta defendatzen dutenen ehunekoarekin bat; hain zuzen ere, ehunekoak gora egin duen arren 2022/23tik hona (2023/24an % 34,23, eta 2022/23an % 33,36), espero baino baxuagoa da ikasleek gainontzeko irakasgaiak egiteko aukeratzen duten hizkuntza kontuan hartuz.

Azken ikasturteetan graduiko titulazioaren bat hasi duten ikasleen profila ona denez, errendimendu-tasak espero zirenak dira zer ikasketa-mota diren kontuan hartzen badugu; gainera, tasa horiek egonkor mantendu dira, eta ikasketak sendotu egin direla ondorioztatzera eramaten gaitu horrek. Halaber, graduiko ikasleek mugikortasun-programaren batean parte har dezakete haien prestakuntza osatzeko (egresatuen ia % 30k programaren batean parte hartu du), eta praktikak ere egin ditzakete enpresetan (egresatuen % 39k praktikak egin ditu). Horrez gain, egresatuek lan-merkatuaren eskariei erantzuten diete, eta enplegu-datuak ere oso onak dira Lanbidek argitaratutako azken txostenaren arabera, ikasketak 2020an bukatu zituen promozioaren laneratzea aztertzen duena.

Fakultatean eskaintzen den graduondoko prestakuntzari dagokionez, master ofizialetan plaza gehiago betetzen ari dira (zehazki, Erasmus Mundus ez diren master ofizialetan plazen % 85 baino gehiago bete da batez beste). Bestetik, oraingoa ere oso emaitza onak lortu dira ikaskuntza-adierazleetan.

Ikastegiko langileek oso konprometitu jarraitzen dute fakultateko prestakuntza proiektuan, eta etengabe hobetzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute. Horrela, 200 pertsona baino gehiago fakultatea modu egokian zuzentzeko beharrezkoak diren batzorderen batean daude. Bestetik, irakasle-ikertzaileen (IIParen) ikerlanak azpimarragarria izaten jarraitzen du (zuzentzen dituzten tesien, ISI argitalpenen eta ikerketa-proiektuen kopurua baino ez da begiratu behar), eta hezkuntza berritzeko jardueretan ere parte hartzen dute (adibidez, prestakuntza ikastaroetan eta berrikuntza proiektuetan). Teknikariek eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileak (TEKAZELek) beren jarduera-eremuetan egiten dituzten lanen inguruko eskuliburu bat egin dute 2023/24 ikasturtean, eta hori oso erabilgarri izango zaie 2023/24 ikasturtean zehar fakultatean sartuko diren langile berriei, batez ere azken urte hauetan Enplegu Publikoaren Eskaintzatik (EPETik) eratorritako lanpostu ugari esleitu direla kontuan hartuz.

Azkenik, ikastegiko azpiegiturei dagokienez, 2023/24an ohiko mantentze-lanekin jarraituko dugu; horrez gain, 9-IG informatika-gela martxan jarriko da kokaleku berrian, eta 5-IG informatika-gelako 25 ordenagailuak ere berrituko dira.


2024/25 ikasturteko erronkak honako hauek dira:

- Ikastegiko Plan Estrategiko berria, UPV/EHUkoarekin bat egin beharko duena, onartzea eta martxan jartzea.
- Graduak titulazioen ikasketa plan berriak prestatzea.
- Ikastegiko TEKAZEL berriak hartzea eta trebatzea.

FAKULTATEKO PROZESUEN MAPA ETA TITULUAK

PROZESUEN MAPA

Zientzia eta Teknologia Fakultateak prozesuakako gestioaren arabera jarduten du, eta Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE) jarraitzen du irakaskuntzaren, ikerkuntzaren, ezagutza-transferentziaren eta kudeaketaren arloetan egiten dituen jarduerak guztiek ahalik eta kalitate onena izan dezaten.



TITULU OFIZIALAK

GRADUAK

Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza (FIE)

Biologiako Gradua (B)

Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua (BKBM)

Bioteknologiako Gradua (BT)

Fisikako Gradua (FIS)

Geologiako Gradua (GEO)

Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (IE)

Ingeniaritza Kimikoko Gradua (IK)

Kimikako Gradua (KIM)

Matematikako Gradua (MAT)

GRADUONDOKOAK

Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Erasmus Mundus Masterra (EMECT+)
Itsas Ingurumena eta Baliabideak Erasmus Mundus Masterra (EMMER)
Mikrouhineta Elektronika eta Optika Berritzaileak Erasmus Mundus Masterra (EMMIMEO)
Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Unibertsitate Masterra (MBF)
Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Unibertsitate Arteko Masterra (MBM)
Ingeniaritza Kimikoa Unibertsitate Arteko Masterra (MIQ)
Ingurugiroaren Agrobiologia Unibertsitate Arteko Masterra (MAA)
Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Unibertsitate Masterra (MCTA)
Kimika Sintetiko eta Industrial Unibertsitate Arteko Masterra (MQS)
Material Berriak Unibertsitate Arteko Masterra (MNM)
Modelizazioa eta Ikerkuntza Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa Unibertsitate Arteko Masterra (MM)
Paisaiaren Kudeaketa. Ondarea, Lurraldea eta Hiria Unibertsitate Masterra (MGP)
Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Unibertsitate Masterra (MCTC)

ESTRATEGIA ETA KALITATE POLITIKA

2021eko uztailan, Fakultateko Batzarrak 2017-2020 aldiko Plan Estrategikoa luzatzea onartu zuen 2021-2023 aldirako. Barneko interes taldeekin gogoeta egin ondoren, luzapen horretan helburu estrategiko berriak eta zegozkien ekintzak gehitu ziren, eta ekintza estrategiko berriak lehendik zeuden helburu estrategikoetan integratu ziren. Halaber, kalitate politika zehaztu zen, Plan Estrategikoarekin bat egiten duena eta 2023/24ko jokaera ere gidatu duena.

Errazagoa da ikasturteekin lan egitea urteekin baino; izan ere, kalitatearen barne-berme sistemaren (KBBSaren) berrikusketa- eta hobekuntza-prozesuak horrela jasotzen du, eta, horregatik, plana 2024ko abuztuaren 31n bukatuko dela erabaki da (2023/24 ikasturtea bukatzean alegia). Planean jasotako ekintza estrategiko guztiak landu dira, eta gehienak arrakastaz burutu dira, gutxi batzuk bakarrik utzi baitira gauzatu gabe. Planeko ekintza batzuk ezin izan dira ehuneko ehunean egin (kasu gehienetan kanpo-faktoreen ondorioz); hala ere, bertan jasotakoaren gehiengoarekin konplitu da.

Aldi estrategiko horretan, KAE eredu erabiltzen jarraitu dugu ikastegia modu integralean kudeatzeko. Horren harira, akreditazio instituzionala berriro dela azpimarratu beharra dago. Prozesu hori 2023ko martxoan hasi zen, eta UNIBASQen aldeko amaierako txostena 2024ko uztailaren 22an jaso zen. Orobat, fakultatean eskaintzen diren graduak berrikusten ari gara ikastegiko eskaintza akademikoa hobetzeko eta ikasleen prestakuntza sendotzeko, eta asko aurreratu dugu prozesu horretan. Gainera, ikasleen zeharkako gaitasunen garapena indartzeko jarduerak ezarri ditugu.

Bestalde, ikastegiaren ingelesezko web-orrian jarri beharreko edukiak aukeratu eta argitaratu dira, eta webean prestakuntza-eskaintza ezagutarazteko eduki zehatzak ere diseinatu dira. Horrez gain, ikerketa taldeen ikerkuntza zabaltzeko modua hobetu da. Horretarako, jarduera ugari antolatu dira, hala nola posterren erakusketak eta ikerketaren baten emaitza nagusiak azaltzen dituzten eskuorriak argitaratzea.

Ikastegiko langileen harreran ere nabarmen aurreratu dugu; adibidez, harrera-eskuliburu bat egin da fakultatean sartzen diren TEKAZELentzat eta IIParentzat, eta prestakuntza-programa bat ere egin da IIParentzat.

Hori horrela, Plan Estrategikoak 2023/24 ikasturtean izandako aurrerapenaz jabetzeko, helburu estrategiko bakoitzean 2017-2020 aldiko Plan Estrategikoan amaitu ezin izan ziren (beltzez) eta 2021-2023 aldiko luzapenean gehitu ziren ekintza berrien (urdinez) aurrerapena ageri da. Orobat, izartxo (*) batez adierazi dira ekintza estrategiko guztiak burututa dituzten helburu estrategikoak.

1. Ardatza. Irakaskuntza

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.1.1. Ikasleen prestakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea	2017/18	%53
	2018/19	%73
	2019/20	%77
	2020/21	%80*
	2021/22	%33,33
	2022/23	%65
	2023/24	%86,67*
HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea	2017/18	%65
	2018/19	%92,5
	2019/20	%96,25
	2020/21	%97,5
	2021/22	%100*
	2021/22	%50
	2022/23	%100*
HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea	2017/18	%60
	2018/19	%80
	2019/20	%90
	2020/21	%93,3
	2021/22	%100*
	2021/22	%25
	2022/23	%100*
HE.1.4. Ikastegiko formakuntza eskaintza laguntzea eta hedatzea	2017/18	%75
	2018/19	%92,5
	2019/20	%95
	2020/21	%97,5
	2021/22	%100*
	2021/22	%16,66
	2022/23	%66,66*

2. Ardatza. Ikerketa

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea	2017/18	%0
	2018/19	%0
	2019/20	%30
	2020/21	%90
	2021/22	%100*
HE.2.2. Ikerketa-taldearen arteko harremana laguntzea	2017/18	%50
	2018/19	%75
	2019/20	%75
	2020/21	%82,5
	2021/22	%100*

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.2.3. Ikerketa-taldeak laguntzea	2017/18	%76,67
	2018/19	%86,67
	2019/20	%90
	2020/21	%93,33
	2021/22	%93,33
	2022/23	%100*
	2021/22	%40
	2022/23	%70
	2023/24	%100*

3. Ardatza. Pertsonak


HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea	2017/18	%33,33
	2018/19	%91,67
	2019/20	%100*
HE.3.2. AZP/IIParen parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintzetan eta proiektuetan	2017/18	%87,5
	2018/19	%100*
HE.3.3. AZP/IIParen garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko prestakuntza sustatzea	2017/18	%35
	2018/19	%65
	2019/20	%90
	2020/21	%100*
	2021/22	%75
	2022/23	%90
HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea	2023/24	%100*
	2017/18	%52
	2018/19	%70
	2019/20	%89
	2020/21	%96
	2021/22	%100*
	2021/22	%40
	2022/23	%93,33
	2023/24	%100*

4. Ardatza. Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE. 4.1. Hezkuntza-berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea IIParen parte-hartzea sustatuz	2017/18	%0
	2018/19	%37,5
	2019/20	%37,5
	2020/21	%50
	2021/22	%50*
	2017/18	%50
HE.4.2. <i>Benchmarking</i> a sustatzea beste ikastegi batzuekin	2018/19	%70
	2019/20	%75
	2020/21	%75
	2021/22	%90
	2022/23	%100*
	2017/18	%50


HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema inplementatzeko prozesuan	2017/18	%21,67
	2018/19	%40
	2019/20	%60
	2020/21	%68,33
	2021/22	%71,66*
HE.4.4. Erantzukizun Sozialen ekintzak sustatzea	2017/18	%38,33
	2018/19	%48,33
	2019/20	%53,33
	2020/21	%53,33
	2021/22	%60
	2022/23	%63,33
	2023/24	%66,67*
HE.4.5. Dibulgazio zientifikoa sustatzea gizartean	2017/18	%57,5
	2018/19	%67,5
	2019/20	%75
	2020/21	%77,5
	2021/22	%87,5
	2022/23	%100*
HE.4.6. Hobekuntzak egitea eraikinean	2021/22	%40
	2022/23	%50
	2023/24	%60*
HE.4.7. Barne- zein kanpo-komunikazioa sustatzea	2021/22	%16,67
	2022/23	%83,33
	2023/24	%86,67*

2017-2020ko Plan Estrategikoa betetzea



1. grafikoa: 2017-2020 Plan Estrategikoaren helburu estrategikoen betetze-maila, ardatz estrategikoen arabera multzokatuta

Plan Estrategikoaren 2021-2023rako luzapena betetzea



2. grafikoa: 2020-2023 Plan Estrategikoaren luzapeneko helburu estrategikoen betetze-maila, ardatz estrategikoen arabera multzokatuta

Oharra: Plan Estrategikoaren betetze-maila ardatzen arabera kalkulatzeko, honako hauek hartu dira kontuan: batetik, helburuek 2017-2020 Plan Estrategikoaren ekintzetan izan duten aurrerapena (ikasturteetako ardatz bakoitzak hasierako Plan Estrategiko bat du, eta 1. grafikoa plan horietan proposatutako helburuen batez besteko aritmetikoa jasotzen du), eta, bestetik, Plan Estrategikoa 2021-2023 urteen artean luzatzeak ekintza berrietan eragin duen aurrerapena (helburu estrategikoak proposatu dira ikasturteetako ardatz bakoitzean ezarritako Plan Estrategikoetan, eta 2. grafikoa helburu horien batez besteko aritmetikoa erakusten du).

PROZESUEN BERRIKUSKETA

1. PROZESUA. PLANGINTZA

2023/24 ikasturtean, fakultateak ikastegiko akreditazio instituzionala berritzea lortu zuen, eta, horrela, aintzatespen hori lortu duen UPV/EHUko lehenengo fakultate bihurtu da. UNIBASQek 2024ko uztailaren 22an bidalitako amaierako txostenean 13 gomendio agertzen dira, eta horiek kontuan hartuz hobekuntza plan bat egin da. Bai gomendioak eta bai plan horretatik abiatuta ezarritako ekintzak txosten honetan agertzen dira.

Bestalde, 2017eko uztailaren onartutako Plan Estrategikoaren iraupena 2021eko uztailaren luzatu zen, eta 2024eko abuztuaren 31n bukatu. Horren ildotik, planean ezarritako ekintza gehienak burutu dira: hasierako planaren kasuan, bertan jasotakoaren % 86,67 egin zen, eta, luzapenaren kasuan, % 90,42. Horrek baieztatzen du 2017an eta 2021ean zehaztutako estrategiak arrakasta izan duela plana indarrean egon den bitartean. Horiek horrela, 2024ko uztailaren hasiera eman zitzaion hausnarketa estrategiko berri bati, eta, horretarako, ikastegiko interes talde guztien (bai kanpokoan, bai barnekoan) ordezkariak osatutako zortzi hausnarketa-talde eratu ziren. Plan Estrategiko berria 2024ko azken hiruhilekoan osatzea eta Kalitate Batzordean eta Zentroko Batzarrean eztabaidatzea eta onartzea aurreikusten da.

Fakultateko prestakuntza-eskaintzari dagokionez, eskaintzen diren graduen egokitasuna aztertzen duten lantaldeek azterketa sakon bat egin dute 2023/24 ikasturtean, eta egindako hausnarketak eta proposamenak sailetako zuzendariekin partekatu dira kontuan har eta azter daitezten. Behin azterketa hori bukatuta eta fakultatearen adostasuna lortuta, proposamena errektoretzari helaraziko zaio eta, onartuz gero, ikasketa plan berriak zehazten hasiko gara. Era berean, tituluak kentzeko protokoloa gorabeherarik gabe jarraitu da UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak Paisaiaren Kudeaketa. Ondarea, Lurraldea eta Hiria masterra eskaintzeari uztea erabaki ondoren.

Azkenik, 2020ko promozioaren enplegu-tasa aurreko promozioena baino hobea dela ikus daiteke Lanbidek argitaratutako txostenetan, eta horrek 2019/2020 ikasturteko egresatuen laneratze arrakastatsua nabarmentzen du. Horrez gain, emaitza horrek agerian uzten du enpresek fakultatean ikasten duten profesionalak kontratatzeko interesa dutela. Gainera, enpresen eta erakunde jardunaldiak ikasleen eta enpresa-sarearen arteko kontaktu zuzena erraztu du. 2024ko otsailan, jardunaldi horien formatua aldatu

egin zen, eta formatu berriak eragindako aldaketen ondorioz, ikasleen partaidetza nabarmen handitu zen, alabaina aurreko urteetan baino enpresa gutxiagok parte hartu zuten.

2. PROZESUA. GRADUA

2023/24 ikasturtean ikastegiko graduatan eragiten duten ez-funtsezko 10 aldaketa egin ziren, baita 19 hobekuntza-ekintza ere. Halaber, ez-funtsezko ia 10 aldaketa aurreikusten dira 2024/25 ikasturterako eta hurrengoetarako, eta 18 hobekuntza-ekintza gehigarri ikastegiko graduentzat. Kopuru horiek fakultatean eskaintzen diren graduako titulazioak hobetzeko etengabe egiten den esfortzua islatzen dute, bai Gradu Ikasketen Batzordeena, bai dekanotza taldearena haren ekimenengatik.

Ikasle berriak erakartzeari dagokienez, ekintzen kopurua eta haien norainokoa oso onak izan dira. Gainera, ikastegiaren webean informazio gehiago jartzearen, «Etorkizuneko ikasleak» atalean graduak aurkezteko liburuxka bat jarri da, eta horrek interes handia piztu du talde horrengan. Ekimen horiek positiboki islatzen dira ikasketak gure fakultatean hasten dituzten ikasleen profilean: gutxieneko onarpen nota 2022/23koa baino pixka bat baxuagoa izan den arren titulazio guztietan (Biokimikan eta Biologia Molekularrean izan ezik), batez besteko onarpen nota oso altu mantendu da fakultate osoan (11,84 14tik), eta 10 graduetak 5etan 12 puntuak gainditzen ditu. Horrez gain, Bioteknologian, Ingeniaritza Kimikoan, Geologian eta Kimikan izan ezik, sarrera berriko plaza guztiak bete dira. Ikasle gutxi batzuk, graduan onartua izateko epea itxita zegoenean, matrikula ezeztatu zuten graduan matrikulatu ondoren, eta horregatik geratu dira plaza gutxi batzuk bete gabe. Orobat, Geologiako titulazioa ezagutarazteko ekintzak eragina izaten hasi direla dirudi, aurreko ikasturtean baino pertsona gehiago matrikulatu baitira aurrean.

Eskaintako titulazioen eskaerak altua izaten jarraitzen du, Geologian izan ezik. Hori kontuan hartuz, matrikulatutako ikasleen profilak orokorrean egokiak dira aukeratutako titulazioak ikasteko. Bestalde, sarbide nagusia batxilergoa da oraindik ere, eta ikasleen profila bokaziozkoa da nagusiki, gehienak lehenengo edo bigarren aukerako graduatan sartu baitira. Nolanahi ere, gradu batzuei eragin egiten dieten antzeko beste titulazio batzuen lehiak. Profil hori aurreko ikasturtekoen antzekoa da, eta, horren ondorioz, errendimendu tasa ez da asko aldatu, titulazioen artean desberdintasun nabarmenak egon arren. Adibidez, errendimendu tasa % 55etik behera jaitsi da Geologiako graduan; Biokimikako eta Biologia Molekularreko graduan, aldiz, % 94,44ra iritsi da. Gainera, Geologiako graduaren batez besteko iraupena modu esanguratsuan luzatu da (2022/23an 5,61 urte irauten zituen, eta 2023/24an 6,9); beraz, hurrengo ikasturteetan joera hori behatu beharko litzateke. Uzte-tasak gradu batzuetan (hala nola gradu bikoitzean, Geologian, Ingeniaritza Elektronikokoan eta Ingeniaritza Kimikoan) izan duen bilakaera ere aztertu beharra dago, % 30ek baino gehiagok ikasketak utzi baititu horietan.

Azkenik, mugikortasun-programetan parte hartzeaz gain (2023/24an graduatutakoek ia % 30ek programa horietan parte hartu zuten), ikasleek praktikak egin ohi dituzte enpresetan, eta horrek argi uzten du haien prestakuntza osatzeko interes handia dutela.

3. PROZESUA. GRADUONDOKOA

2023/24an graduondokoaren eskaintzaren hedapena indartu izanak emaitza ona izan du, Erasmus Mundus ez diren masterretako batez besteko okupazioa esanguratsuki igo baita 2023/24 ikasturtean, eta, batez beste % 85ekoa baino altuagoa izan da. UPV/EHUk master ofizialetan izena emateko eta matrikulatzeko ezarri duen protokolo berriak ere eragina izan du.

Irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesua errazagoa izan dadin eta titulazioak erakargarriagoak izan daitezen ikasleentzat, Masterreko Batzorde Akademikoek ekintza eta aldaketa ugari proposatu eta egin dituzte ikasketa planetan, eta okupazioaren datu on horrek batzordeek egindako esfortzu hori berresten dute.

Ikaskuntzari dagokionez, adierazle nagusiek oso bilakaera pozgarria izan dute masterreko titulazioetan.

4. PROZESUA. IKERKETA

Fakultateak ikerkuntza- eta hezkuntza-maila ona mantendu du. Horren adierazle dira defendatu diren doktorego-tesien kopurua igo izana (2023/24 ikasturtean 112 izan ziren, 2022/23 ikasturtean 104, eta 2021/22an 74) eta IIParen ISI argitalpen-ratioa (2022/23 ikasturtean 0,94koa izan zen). Gainera, UPV/EHUko «Highly Cited Researcher» bakarra fakultateko langileetako bat da, eta bertako ikerkuntza-eremu batzuk UPV/EHUk baino postu altuagoa lortu dute Shanghaiko Rankingean.

5. PROZESUA. GIZA BALIABIDEAK

Beharrezkoa da IIParen leheneratze-tasak mantentzea ikastegiko irakasle-ikertzaileen egonkortasuna lortzeko, tasa horien adierazleek beheranzko joera azaltzen baitute oraindik ere. 2019-22 EPEa ebatzi ondoren, ikastegira datozen TEKAZEL berriak prestatu beharko ditugu haien zereginak burutu ditzaten.

Fakultateko langileek (bai TEKAZELek, bai IIPak) UPV/EHUko eta ikastegiko prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen dute aktiboki. Gainera, irakasleek hezkuntza berritzeko interes handia dute. Hain zuzen ere, 2024ko ekainean, dekanotza taldeak «GIHak Zientzia eta Teknologian txertatuz» jardunaldia antolatu zuen, eta parte hartu zutenen kopurua (40 pertsona) interes horren isla da. Halaber, 114 lagun hezkuntza berritzeko proiektu ugari lantzen ari dira, eta irakaskuntza berrikuntzaren inguruko 18 argitalpen ere egin dira.

Bestalde, langileak konprometituta daude ikastegiko prestakuntza proiektuan (200 pertsona baino gehiago ikastegian dauden batzordeetako kide dira).

6. PROZESUA. EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIOA

Ikastegiak modu egokian kudeatzen du aurrekontua, eta hein handi batean irakaskuntza-jarduerak bultzatzeko eta ikasleen aldeko hobekuntzak egiteko erabiltzen du.

2023/24 ikasturtean, graduako eta masterreko idazkaritzaren eremuak berrantolatu dira, eta fakultateko idazkaritzaren aurrez aurreko arreta-ordutegia arrazionalizatzeari esker, asko hobetu dira bai idazkaritzako arreta zerbitzua, bai zerbitzuko langileen asebetetzea.

Bestalde, Akademia Gestio Zerbitzuaren sailak bereizteko eta idazkaritzan hobetu beharreko alorrak hautematea errazagoa izateko, zerbitzuaren inguruko gogobetetze inkesta eguneratu da. Aurkibideak ere bateratu dira (orain 0-10) inkesta egitea errazagoa izan dadin erabiltzaileentzat. Aipatzekoa da erabiltzaileak oso gustora daudela Akademia Gestio Zerbitzuarekin.

Bestalde, dekanotzako eremu desberdinetan gauzatzen diren administrazio-prozedurei buruzko eskuliburu bat egin da. TEKAZELen 2019-22 EPEaren ondorioz gertatzen ari diren aldaketetara egokitzeko lehen fasea da ekintza hori (2024/25 ikasturtean zehar egingo dira aldaketa guztiak).

2024/25erako proposatu den zeregin handia idazkaritza berrantolatzea da, EPE horren ondorioz. Langileak lekualdatu ondoren, beharrezkoa da langile berrien aurretiko prestakuntza eta lan-esperientzia aztertzea, batez ere kudeaketa akademikoaren eta kontabilitatearen eremuetan, langile horiei zein zeregin esleitzea komeni den identifikatzeko. Azterketa horrek zereginak eta idazkaritzako sailak berrantolatzeko bidea emango du.

7. PROZESUA. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK

Ikastegiko azpiegiturak direla eta, horiek hobetzeko esfortzua egiten jarraitu dugu, eta egindako ekintzen kopurua aurretik egindakoaren antzekoa izan da.

Bestetik, 2023/24 ikasturtean azken urteetan behatutako hondakin-kopuruaren gutxipena baieztatu da (12.520 kg hondakin arriskutsu kudeatzen dira urteko), ikasturte honetan ere 2022/23 ikasturtean baino hondakin gutxiago sortu baitugu (12.830 kg). Datu horiek ingurumena hobetzeko ekintzak ondo finkatuta daudela adierazten dute. Horrez gain, ikastegian gertatutako istilu eta ezbeharren kopurua txikitu egin da (2023/24an 4 izan dira, eta 2022/23an 11); hala ere, 2021/22koa baino handiagoa da, bi besterik ez baitziren izan ikasturte hartan. Edonola ere, fakultatean egiten den jarduera-kopurua kontuan hartuz, ez dira istilu eta ezbehar asko.

8. PROZESUA. EUSKARA ETA ELEANIZTASUNA

Euskarak ez du presentzia nahikorik akademikoak edo kulturalak ez diren eremuetan. Hori dela eta, jarduera ugari campuseko errektoreordetzaren eskuetan utzi dira ikusgarritasun handiagoa izan dezaten eta errektoreordetzak beste ikastegi eta fakultate batzuekin koordinatu ditzan. Izan ere, fakultateko komunitateak ez du motibaziorik, eta ez du jarduerarik sustatu.

Aipagarria da GrAL gehienak gaztelaniaz izatea lehenengo urteko ikasle gehienek euskaraz ikasten dutela kontuan hartuz. Hortaz, interesgarria izango litzateke egoera horren eragileak sakontasunez aztertzea.

Ingelesezkaintzen diren irakasgaiei dagokienez, kopurua nahiko handia da fakultatean; hala eta guztiz ere, desoreka dago graduen artean, batzuek irakasgai asko baititutze ingelesez (adibidez, Matematikako graduak) eta beste batzuek, berriz, oso gutxi (adibidez, Geologiako graduak).

9. PROZESUA. KOMUNIKAZIOA ETA PROIEKZIO SOZIALA

Sare sozialetako presentzia handitu egin da eskusiboki hortan lan egiten duen eta multimediako langileekin elkarlanean dabilen praktiketako pertsona bati esker.

«9.2 Gizartearekiko interakzioa» prozeduraren adierazleei dagokienez, gehienek aurreko balioak mantendu dituzte, eta batzuek handitu ere egin dituzte. Lanbide heziketako (LH) ikasketen arautzea aldatu egin denez (orain lehenengo eta bigarrenengo urtean egin behar dituzte praktikak), ikasle gehiago hartu ditugu ikastegian.

Horrez gain, ikasle-elkarteen kopurua handitu egin da, eta baita haien partaide diren ikasleen kopurua ere. Orobat, ikasle-elkarteei lan aktiboa egiten dute, eta partaide asko izaten dituzten jarduera ugari antolatzen dituzte ikasturtean zehar.

Azkenik, dekanotzan kontsulta eta kexa gutxiago jaso izanak informazioaren kalitatea eta transmisioa hobetu dela esaten digu.

10. PROZESUA. EBALUAZIOA, BERRIKUSKETA ETA HOBEKUNTZA

2023/24 ikasturtean asko handitu da ikastegiak egiten dituen barne gogobetetze inkestak betetzen dituzten pertsonen kopurua, eta horrek azken ikasturteetako beheranzko joera bihurtu du. Aldaketa positibo hori ikasturteetako koordinatzaileen partaidetza aktiboari esker gertatu da, ikasleak inkestak betetzera animatu baitituzte. Neurri horren eraginkortasuna ikusita, hurrengo ikasturteetan gauza bera egingo dugu, eta posible da hobekuntzak egitea neurria are gehiago optimizatzeko.

Era berean, egresatuentzako gogobetetze inkestak ikasle ohi gehiagok bete zitzaizkiren, 2023/24an estrategia bat ezarri zen: diplomak emateko ekitaldian inkestara sarbide zuzena izateko QR kode bat proiektatzea. Haatik, ekimen horrek ez zituen espero ziren emaitzak lortu; hortaz, estrategia berriak bilatu beharko dira etorkizunean talde horren partaidetza sustatzeko.




Bestalde, ikasturte horretan bertan, errektoretzako zerbitzu nagusiek IIPak eta TEKAZELek urtean bitan betetzen duten gogobetetze inkesta egin zuten, eta, horri esker, interes taldeen % 100en itxaropenak eta beharrak ezagutu genituen.




Bestetik, 10.3 b adierazleari (proposatu diren ekintzetatik UNIKUDEN sortu direnak zenbat diren neurtzen duen adierazleari) dagokionez, mugak egokitu dira, aurretik ezarritakoek ez baitzuten ikastegiaren benetako jardura islatzen. Horrez gain, graduak berrikustez arduratzen diren lantaldeek modu intentsiboan lan egin zuten 2023/24 ikasturtean, eta nabarmen aurreratu zuten prozesu horretan.


Azkenik, 2017-2023 Plan Estrategikoa bukatu izanak eta 2024-2028 Plan Estrategiko berria egin izanak sistemaren adierazle-multzoa berrikusteko beharra sortu du. Helburua adierazle horiek optimizatzea da, ildo estrategiko berriekin lerrokatuta egon daitezkeen eta fakultatearen kudeaketa modu zehatzean isla dezaten.

EMAITZA NAGUSIAK



GRADUKO TITULUEN ADIERAZLEAK








MASTERREKO TITULUEN ADIERAZLEAK



Ikasketak amaitu dituztenen kopurua



SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	22/23	22/23	21/22	20/21	19/20
2.6j Mugikortasun programetan parte hartu duten egresatuen ratioa	28,72	24,79	23,89	17,97	23,39
2.7a Curriculumeko edo curriculumetik kanpoko praktikak egiten ari diren ikasleen kopurua	322	357	268	341	244
3.2c Erasmus Mundus ez diren masterretako batez besteko betetzea	86,67	57	66	74,7	75,31
4.1d IIParen ISI argitarapenen ratioa	0,92	1,04	1,18	1,21	1,14
4.1i Defendatutako Tesien kopurua	112	104	73	82	70
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile doktoreen %a	82,57	85,37	86,6	86,17	88,02
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkorren %a	69,01	69,3	70,57	72,82	74,57
6.1b Irakaskuntza jarduerari eskainitako aurrekontu arruntaren %a	48,76	46,62	43,79	49,95	77,03
6.1e Ikerketa taldeei laguntzeko eskainitako ikastegiko urteko aurrekontuaren %a	5,18	3,3	4,72	16,02	10,2
7.2d Ikastegian garatu eta zabaldu diren ingurumen hobekuntzarako ekintzen kopurua	4	5	4	4	5
8.1c Euskaraz egindako GrALen %a	34,23	33,26	39,55	37,52	43,88
8.2h Ingelesez irakasten diren irakasgaien kopurua	40	35	34	34	35
8.2i EFC irakasgaien kopurua	105	77	74	71	76
9.2c Kanpoko erakunde eta instituzioekin hitzarmen eta kolaborazio kopurua	10	14	107	15	13
DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IIParen %a	65,64	61,19	56,54	53,05	48,81

EKINTZAK

2023/24 IKASTURTEAN EGINDAKO EKINTZA BATZUK

1. UNIBASQen aldeko txostena Akreditazio instituzionala berritzeko.
2. Graduak titulazioentzat aldaketak proposatzea, eguneratuta egon daitezen.
3. Graduak titulazio batzuetan, lehenengo lauhilekoan irakasten diren ingelesezko irakasgaiez osatutako 30 kreditu-blokeak sortzea.
4. 30. astearen eta maiatza-ekaineko azterketen artean ikasteko egunak islatzen dituen eskola-egutegia proposatzea.
5. Webean argitaratutako ordutegiak azaltzen dituen bideo bat egitea.
6. Ikastegiko masterretara ikasle berriak erakartzeko jardunaldiak diseinatzea.
7. Ikastegiko master ofizialen inguruko horma-irudiak diseinatzea.
8. Ikastegian egindako ikerketa-lanari buruzko datuak biltzen dituen liburuxka aurkeztea.
9. Ikastegiko jardueretan gehitutako GIHen inguruko prestakuntza antolatzea.
10. Matrikula aldatzeko eta handitzeko eskaeraren eta ebazpenaren egungo protokoloa aztertzea.
11. Informatika-gela 9 izango den ikasgela mugitu denez, informatikako ikasgelen eserleku-kopurua handitzea.
12. Dekanotzako eremuen administrazio-prozedurei buruzko eskuliburua idaztea.
13. Unibertsitate-enpresa gelen kopurua handitzea.
14. Gradu Ikasketen Batzordeek (GIBek) eta Masterreko Batzorde Akademikoek (MBAk) hobekuntza-ekintzak proposatzea.

2024/25 IKASTURTEAN BURUTU NAHI DIREN EKINTZA BATZUK

1. Ikastegian 2024-2028 aldirako Plan Estrategiko berri bat zehaztea eta abiaraztea.
2. Graduak titulazioak eguneratzeko proposatu diren aldaketak ikasketa planetan islatzea.
3. Ordutegiak modu egokian diseinatzeko, ezartzeko eta grabatzeko softwarea hobetzea.
4. Mugikortasuna sustatzearen, truke-programen hedapena zabaltzeko aukera aztertzea.
5. ZTF-FCTko Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko II. Jardunaldia antolatzea.
6. Idazkaritza berrantolatzea 2019-2020-2021-2022 EPEaren ondorioz.
7. Gradua euskaraz ikasi duten ikasleak GrALa beste hizkuntza batean egitera bultzatu dituzten arrazoiak aztertzea.
8. Ikastegiko webean ikastegian ematen diren titulazio ofizialetako egresatuen laneratzeari buruzko informazioa gehitzea.
9. KBBS prozeduren adierazleak berrikustea.